

Berria.
[info](#) » [Papereko](#)
[Edizioa](#) » [Plaza](#)



Nazionalismo internazionalistaren defentsa

C. Ulises Moulinesen 'Manifestu nazionalista' eman du argitara Txalapartak

Gorka Erostarbe
 Donostia

• [sosLaIa](#)

«Nazionalismoa, bakoitzaren nazioa ez ezik, beste nazioen existentziaren eta garapenaren onarpena da. Ondorioz, nazionalismo internazionalista hegemonismoaren antagonikoa da».

Iñaki Sotok historialariak idatzitako hitzak dira; C. Ulises Moulinesen *Manifestu nazionalista* liburuaren hitzaurrean egindakoak, liburuaren tesi garrantzitsuenetakoa azalarazten dutenak. Txalaparta argitaletxeak plazaratu berri du manifestua. Xalbador Garmendiak euskaratu du, eta Iñaki Soto bera izan da edizio arduraduna.

Liburuak badu azpтитulua ere: *Are, separatista esango nioke, estutuz gero*. Azpтитuluaren nondik norakoa ere azaltzen du Sotok hitzaurrean: «Moulines ez da ausartzen nazio nagusiei aholkurik ematen, baina argi ikusten du etnia nagusian urtu edo bestela estatu propio bat eraiki, beste biderik ez zaigula geratzen».

Manifestua Moulinesek berak idatzi izana da liburuaren balioetako bat, Sotoren iritziz: «Pentsalari sakona eta trebea da. Testuaren lehendabiziko bertutea formala da. Testu zientifikoa da, ez da idazki ideologiko edo politikoa».

Moulinesek idatzitako manifestuak bi atal nagusi ditu. Autoepistemikoa deitzen du aurrena. Nazioen eta etnien arteko harremana aztertzen du horretan. Sotoren hitzetan, «Moulinesen helburua da zehaztea zertaz hitz egiten dugun nazioez eta etniez hitz egiten dugunean. Moulinesek azaltzen du etnietan bananduta dagoen mundu batean bizi garela eta etnia horiek ezin ditugula ulertu objektuak ulertzen ditugun zentzu zuzen horretan».

Manifestuaren bigarren alderdia axiologikoa da, hau da balioen teoria bat eraikitzen du: «Nazionalismoaren etikaz dihardu. Zergatik izan behar dugun nazionalista eta zergatik jarraitu behar dugun izaten azaltzen du. Nazioen eta etnien iraupena eta garapena bermatzeko programa politiko bat da nazionalismoa, eta alde horretatik da positiboa». Nazionalismoaren balio bat lehenetsi behar izanez gero, «pluralitasunaren berezko balioa» lehenetsiko luke Moulinesek: «Hobeto da ahalik eta gauza gehien egotea eta ahalik eta gauza gehien bermatzen duten printzipioei jarraitzea». Halere,

Moulinesek aitortzen du argudio bakar horrekin ezin dela azaldu zergatik den ona nazionalismoa.

MANIFESTUA ETA OIHARTZUNA. Manifestu nazionalista (are separatista ere esango nioke, estutuz gero) 2001ko udaberrian argitaratu zen lehengo aldiz. Bateratsu argitaratu zen Mexikoko eta Espainiako filosofiako bi aldizkari ospetsutan (Diánoia-n eta Isegoria-n, hurrenez hurren): «Artikuluak, batetik, sorpresa eta, bestetik, iskanbila eragiten ditu: arlo akademiko hispanoan inork gutxik espero zezakeen nazionalismoaren horrelako defentsa sutsua, are gutxiago defentsa hori arlo horretan begi onez ikusia den Ulises Moulines zientzia filosofoaren eskutik etortzea», dio Iñaki Sotok hitzaurrean.

Erantzun mota askotakoak jaso zituen manifestuak Mexikon eta Espainian: «Mexikotik etorritako erantzunek joera kritikoa dute, baina eztabaida akademikoaren maila mantentzen dute». Espainiako kasuan, ordea, «artikuluen maila guztiz ideologikoa eta anti-akademikoa da». Aurelio Artetaren kasua nabarmentzen du Sotok. «Nazionalismoaz baino gehiago terrorismoaz hitz egiten du Artetak eta, izenburuek iradokitzen dutenez, Moulinesen aurka akusazio gogorrak egiten dira bertan».

Iskanbila horren ingurukoa da, hain zuzen ere, Txalapartak plazaraturiko edizioak dakarren gibel-solasa.

«Moulinesen helburua da zehaztea zertaz hitz egiten dugun nazioez eta etniez hitz egiten dugunean»

«Hobeto da ahalik eta gauza gehien egotea eta ahalik eta gauza gehien bermatzen duten printzipioei jarraitzea»

IÑAKI SOTO

Historialaria

■ sosLala

C. Ulises Moulines

Pentsalari espainiar-venezuelarra

C. Ulises Moulines (Caracas, 1946) Espainiako gerra zibiletik Venezuelara ihes egindako bikote errepublikano baten semea da. Naziotasun espainiarra eta venezuelarra daukan arren, egun Munichen bizi da. Nagusiki Zientziaren Filosofian dihardu eta nazioarteko filosofia komunitatean berebiziko ospea dauka. Katedratikoa izateaz gain, Municheko Unibertsitateko Filosofia, Logika eta Zientziaren Teoriaren Institutuko zuzendaria da. Hamar liburutik gora argitaratu ditu, baita dozenaka artikulua ere mundu osoko jakintza aldizkarietan.

HasieraEuskal HerriaEkonomiaMunduaKirolaKulturaBerriaTBParte HartuBlogakBereziakPaperekoa  